

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko ekainaren 3a. VIII. urtea. 2.238. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Babarrunaren inguruan 21 lanpostu sortu nahi ditu Tolosako Udalak

‘Babarrungileak ikusmugak ereiten’ proiektua Lanbideri aurkeztu dio udalak, eta egitasmoa 18 urtetik gorako langabetuei zuzenduta dago

Tolosa 2015en helburu bertsua dauka proiektuak, «Tolosa Euskal Herrian erreferente izatea, herri dinamiko moduan» **o3**



Pello Olano preso lizartzarra bere familiarekin eta lagunekin etxean. HITZA

Paula De Bairos Sousa Pello Olanoren bikotekidea

«Ezintasun izugarria sentitzen duzu»

Amaren hiletara joateko aukerarik ez zuen izan Pello Olano lizartzarrak; gertakari horren inguruko argibideak eman ditu bere bikotekideak **o2**

Behar-Zana Elkartearen 65. urteurrena ospatuko dute, Villabonan

Biharko egun osoko festa antolatu dute: kirola, musika eta afaria izango dituzte; igandean berriz, bazkaria egingo dute **o4**

Ina Zeberio gogoratzeko Gernikan eta Lizartzan elkartuko dira

Ertzaintzak duela 13 urte hil zuen tiroz lizartzarra Gernikan; bihar bertara joango dira herritarrak, eta etzi Lizartzan oroituko dute ETAKo kidea **o6**

Harri Jaiarekin hasiko dute Kultur Asteburua Bedaion

Hilaren 9an dute festa; hilaren 11n kontzertua eta haur parkearen inaugurazioa izango dute, eta hilaren 12an Mendi eta BTT martxak **o5**



Haur parke berria inauguratuko dute hilaren 11n. HITZA

Aska ezazu irudimena zure **DISEINATU**



ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN



Pello Olano bere familiarekin Lizartzako etxean, maiatzaren 19an. HITZA

Paula De Bairos Sousa > Pello Olanoren bikotekidea

Euskal preso baten eskubideak, praktikan, nondik norakoak diren azaltzen du Paula De Bairos Sousak ondorengo elkarrizketan. Pello Olano lizartzarraren ama hil zenean gertatua kontatzen du «euskal preso politikoaren» bikotekideak.

«‘Besarkada bat denoi, lortuko dugu!’ esateko esan zidan Pellok»

Asier Imaz Lizartza

Maiatzaren 17an, asteartean, Pello Olano lizartzarraren ama hil zen. Olano Jaengo espetxean aurkitzen den «euskal preso politiko» da. Amaren hileta ostegun arratsaldean egin zuten, eta baimen guztiak eduki arren, Pello Olano ez zen bertan izan.

Paula De Bairos Sousa bere bikotekidea da, eta egun horietan gertatua kontatu dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Amarena gertatu ondoren, noiz hasi zineten berarekin harremanetan jarri nahian?

Asteazken goizean hasi nintzen Jaengo espetxera deitzen, 06:00etan. Justu egun horretan txapeoa egiten dute: ez dira zeldatik irteten, eta ez dute deitzen. Deika ibili ondoren, 07:00etan erantzun zidaten. Pellori abisua pasatzeko eskatu nien; etxera dei zezala. Esango ziela erantzun zidaten, baina 11:00ak iritsi ziren eta Pellok ez zuen deitzen.

Eta berriro deitu zenuen espetxera. Beste pertsona batek hartu zuen telefona, eta espetxeko gizarte laguntzailearen bidez berarekin harremanetan jarriko zirela esan zidaten. Berriro itxaroten egon

nintzen, beste ordubete, eta berdin; ez zuen deitzen.

Zer egin zenuen orduan?

Abokatuari deitu nion, eta honek gizarte laguntzailearekin hitz egin zuen. Pellok albistea bazezkiela esan zion, eta ez zuela deitzen berak ez zuelako nahi. 13:00ak inguruan deitu zuen Pellok, jatera atera zuten.

Eta gizarte laguntzaileak esandakoa egia al zen?

Ez. Albistea kide batek eman zion, ez eurek.

Baimenak eskatzen hasiko zineten orduan, ezta?

14:00ak inguruan espetxeko gizarte laguntzaileak deitu zigun, hiletan non zen, zein ordutan eta abar galdetuz. Ea zer gertatu zen galdetu genion, zergatik Pellori ez zioten ezer esan, kide baten bidez enteratuzela. Funtzionarioek esan ziotenaren konstantzia bazuela esan zigun, baina ez zekiela zer gertatu zen.

Kide baten arrebari esker, ostegunean jakin genuen bidean zeto-rra. Dirudienez, asteazken gauean ingresoetara atera zuten, eta ostegun goizean, 06:00ak inguruan, honantz abiatu ziren. Goizean atera baldin bazen, hiletara etorriko zela pentsatu genuen.

Hiletan zein ordutan zen?

19:00etan. Ondoren, abokatuak ere deitu zigun, bidean zeto-rra esateko.

Jaendik Lizartzara zenbat denbora dago?

Zortzi ordu t'erd. Denbora nahikoa, beraz.

Baina 19:00ak iritsi ziren, eta ez zen agertzen?

Kontrolak, helikopteroa, guardia zibilak, ertzainak, paisanoz jantzitakoak... muntaia izugarria egin zuten egun guztian zehar, baina Pello ez zen iristen. Amaren gorpua beilatokian zegoen- an ere polizia han ibili zen, eta pentsatzen genuen agian hara eramango zutela Pello, orduan, berarekin egon ahal izateko haurrak ere bertara eramane genituen. Baina ez zen azaltzen.

Ezzen ez beilatokira, ez hiletara, eta ezta hilerrira azaldu.

Ez. Hilerrian ginela patrolak ikusten genituen errepeidean, baina bera ez zen iristen. Hiletan egoteko baimena zuen, baita ondorengo familiarekin egotekoa ere. Amari azken agurra emateko aukera izango zuela pentsatzen genuen, baina... Tentsio handia zegoen, eta oso gogorra egin zitzaizgun. Alde batetik, hileta bera

zegoen, eta bestetik, ekarriko tote zuten edo ez. Engainatuta sentitzen zara.

Azkenean, gauean ekarri zuten.

Etxean geunden, 22:00ak ingurura zen. Familiako batzuk joanak ziren jadanik, berandu zelako. Semea etorri zen korrika, Pello plazan zegoela esanez. Aurrez, udaletxe ondoan patrol bat egon zen, eta ea zer zekiten galdetu genien. Espetxetik atera zela eta gehiago ezer ez zekitela esan ziguten guardia zibilek. Denbora guztian adarra jotzen ibili ziren.

Etxera ez zuten eman beraz, plazan utzi baldin bazuten?

Udaletxe ondoan dagoen Larreneko zubian utzi zuten, eta plazan barrena oinez ekarri zuten etxera; biren artean helduta eta esku burdinekin.

Bidaiaz galdetu al zenioten?

Ongi esan zuen, baina gogorra izan zela. Bost aldiz botaka aritu zen. Lehenik Logroñora eramane zuten, bertan denbora egiten aritu omen ziren. Gero, Intxaurrendora eramane zuten. Eta handik hona.

Zenbat denbora egon zen zuekin?

20 minutu eskas, eta hori negoziatuz ibili ginelako. Guk hamar minutu gehiago eskatzen genien, eurek bost bakarrik ematen zizkiguten. Azkenean, ez zuentzat eta ez guretzat esanaz, zazpi minutu gehiago utzi zizkiguten. Guztira, 20 inguru.

Etxean esku burdinekin eduki al zuten?

Bai. Kentzeko esan genien baina ezetz. Seme txikiak bere besoetan egon nahi zuen, baina ezin zuen jaso. Aitak pultserak zituela esan genien. Polita izan zen aita etxean sartzen ikusi zuenean: «aitatxo bai, aitatxo bai... hori ez, hori ez» esaten zuen txikiak. Uniformerik gabe zihoazen, baina nolabait jabetu zen, eta etxean ez zituela nahi esaten zien. Tankera hartu zien.

Kanpoan geratzen al zen inor?

Jende asko elkartu zen, eta oso ondo. Ez genuen espero horrenbeste jende egongo zenik, batzuk alde egin behar izan baitzuten. Hori bai, ahaztu aurretik, Pellok denei esateko esan zizkidan hitzak aipatu behar ditut: «Besarkadak denoi, lortuko dugu!».

Itzulerako bidaia nolakoa izan zuen?

Astelehenera arte ez genuen beraz ezer ere jakin. Jaenerako espetxera itzuli aurretik zazpi geldialdi egin zituen. Hemendik Logroñora eramane zuten, ondoren, Gasteiz, Burgos, Palencia, Segovia, Valladolid, Valdemoro... pasatu zituen. Gogorra izan zela esan zuen, gainontzean ongi aurkitzen da.

Zer sentsazioekin gelditu zarete?

Nahi dutena egiten dute. Ez dute errespetatzen ezer. Ezintasun izugarria sentitzen duzu, eta burla egiten dizute goitik behera. Presoa erabili egiten dute, baita bere familia ere, inork ez du eskubiderik. Berdin zaie ama hil izana... denak berdin die.

Berriaren edizio digitalerako DISEINATZAILE-PROGRAMATZAILE bat behar da.

Ezaugarri hauek bete behar ditu:

Erreferentzia: 2011EH-DP

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengoaietako eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzera.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (ekainean).

Bidalji curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, ekainaren 7a baino lehen.



'Babarrungileak ikusmugak ereiten' ekimena aurkeztu die udalak Lanbideko ordezkariari. HITZA

Babarrunaren ekoizpenean belaunaldi berriak aritzea bultzatu nahi du udalak

21 pertsona lan merkatuan sartzeko ahalbidetuko duen egitasmoa aurkeztu diote Lanbideri

I. Urkizu

21 lagun lan merkatuan sartzeko helburu nagusiarekin, Tolosako Udalak *Babarrungileak ikusmugak ereiten* proiektua aurkeztu dio, Lanbideko administrazio kontseiluari.

Lanbideko ordezkariak bertatik bertara ezagutu ahal izan dute Tolosako Udalaren egitasmoa. Horretarako, batzar aretoan bilduta egon eta gero, Bedaiora joan dira, proiektua praktikoki bertan gauzatuko baita.

Babarrungileak ikusmugak ereiten izeneko proiektu honek,

Tolosa 2015en helburu bertsua du: «Tolosa Euskal Herrian erreferente izatea, herri dinamiko moduan». Era berean, tradizioa eta modernitatea uztartu nahi dituzte, jasangarritasuna kontuan izanik. Horrela beraz, formakuntza bidez lanpostuak sortzea edo babarrunaren eskari handiari rideia berritzaileekin erantzutea bezalakoak lortzeko bidea da egitasmoa.

Helburu zehatzei dagokionez, udalak aurkeztu berri duen proiektu hau, epe luze eta tokiko garapenerako proiektu integrala izatea da jomugetako bat. Bestalde, 18 urtetik gorako gazteak lan munduan sartu, eta belaunaldi aldaketa honen bidez, lehengo sektorea bultzatu nahi dute. Azkenik, babarrunaren ekoizpenari lotutako enpresa egitasmoak (kooperatibak, elkarteak, eta abar) eta nekazaritza, abel-

tzantza, gastronomia, turismoa eta ingurugiroko sektoreen arteko sinergiak sortzea ere ahalbidetu nahi dute egitasmoarekin.

Hiru fasetako programa

Lehenik eta behin, proiektua jendartean hedatzea izango da egin beharreko lana, antolatzaileen arabera. Parte hartu nahi dutenek, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: 18 urte baino gehiago izatea, langabezian egotea, diru sarrerak bermatzeko errentaririk ez jasotzea eta ahal bada Tolosan bizitzea.

Bigarren fasean, nekazaritzarako gaitasun profesionalak lortzeko tailer eta mintegiak martxan jarriko dituzte tutoreek.

Azkenik, landaketak egiteaz gain, ondare naturala berreskuratze eta nekazal esplotazioko enpresak sortzeko prestakuntza tailerrak antolatuko dituzte.

● tolosa@hitza.info

Bilduk eskerrak eman nahi izan dizkio herriari

Pasa den maiatzaren 22ko babesaren ondoren, «alkatetzako eskuratzeko prest» agertu dute euren burua

I. Urkizu

Tolosako Bilduk herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie, prentsaurreko baten bidez: «Gure eskerrak beroenak, kuttunenak, goxoenak, Bilduri bozka eman diezuen 3.806 herritarrei».

Era berean, herri programa lantzen, propagandan, zabalkunde, bideoa egiten, buzoietako banaketan nahiz maiatzaren 22ko egun «duze eta ahaztezin» lanean lagundu zieten guztiak ere gogora ekarri nahi izan dituzte.

Eskerrekin batera, bestalde, herritarrei ere zorionak eman nahi izan dizkiete, «Tolosak auzolanean lan eginda irabazi duelako». Hautetsiak herritarrik gabe «ezer ez» direla ere nabarmendu nahi izan zuten.

Alkatezari begira

Azken asteotan, datorren ekainaren 11n izango den udalbatza aldatetara begira dabil gizartea, eta Bildukohautetsiak, indar bozkatuena izanda, «udala gidatzeko gogotsu» daude, «alkatetzako eskuratzeko prest». Herriak eman dien ardura «gogoz eta apaltasunez» hartzeko borondate osoa agertuko dutela ziurtatu dute prentsaurrekoan. Alderdi politikoak euren artean hizketan ari dira egunotan, eta Bildu koalizioak, bere aldetik, «desberdinen artean bidea egiteko garaia» dela uste du. Bide honetan, akordio batera heltzeko zenbait helburu aurkeztuko ditu Bilduk.

Alde batetik, Tolosa bizikidetzan garatzea dute helburu, Gernikako Akordioa erreferentzia hartuz. Etxebizitzari dagokionez, lurzorua erabilera zuzurra bultzatuko dute. Gizarte zerbitzuak nahiz parekidetasuna jorratuko dituzte, eta azkenik, euskararen normalizazioa garatzeko, Tolosa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea jomuga izango dute.



Bilduko zortzi hautetsiak, prentsaurrekoan. ASIER IMAZ

Amarotzen erreferenduma izango da asteburuan

Auzoko sarbide berria aukeratu beharko dute herritarrek, bi proposamenetako bati bozka emanda

I. Urkizu

Bihar eta etzi, amaroztarrek auzorako sarbideak erreferendum bidez aukeratu dituzte.

2010. urteko azaroan herri kontsulta egin zuten auzoan, eta peatonalizazioaren eta trafikoarne hobekuntzen sailean bi aukera proposatu zituzten.

Horrela, 16 urtez gorako amaroztar guztiak bozka eman ahal izango dute. Bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara joan ahal izango da medikua kontsulda dagoen lekura. Igandean, berriz, 9:00etatik 14:00etara egongo dira bertan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Harategiko langileak.** Harategirako eta urdaitegirako langileak behar ditugu Alegian. Interesa dutenek, eraman dezatela euren curriculuma lehenbailehen Alegiako Aliprox dendarara: San Juan kalea, 44.

■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun neska euskalduna behar dugu, astean zehar taberna batean lan egiteko. Interesatuak, deitu 608 10 39 59 telefono zenbakira.

■ **Langilea.** Uztailean fregaderan aritzeko pertsona bat behar

da, sukaldean pixka bat dakiena. Interesatuak, deitu 665 70 37 70 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Iruran 120 metro karratuko lokala, gune industrialean kokatua. Oso egokia eta aproposa da hainbat eginkizunetarako. 500 euro hileko. Interesatuak, deitu 619 34 93 85 telefono zenbakira.

ESKAITZA

■ **Ingelesko ikastaroak.** Ingelesko ikastaroak, uda partean:

ekainean, uztailean eta abuztuan. Talde bereziak. Elkarrizketak, atzerriko bidaietarako eta lanerako gaitasunak. Maila desberdinak, taldea edo bana-bana. Umeak eta helduak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68.

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak. LH, DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzenduriko klaseak emango lituzke, Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta inguruetan. Interesatuak, deitu 669 00 56 71 telefono zenbakira.

ekaina
2011ko
junio
KULTUR
PROGRAMAZIOA

antzerkia
FLEMING IKASTETXKO IKASLEEN ANTZERKI EMANALDIA
Ekainak 3 ostirala, 17:30ean

EZ ZURI ETA EZ BELTZ
Ekainak 3 ostirala,
22:30ean Gurea Zinean
Alegio TTApa
Antzerki taldearen eskutik

zinea
HUMOREZKO
ZINE MUTUA
CHARLIE CHAPLIN
eta **BUSTER KEATON**
Ekainak 10 ostirala,
22:30ean Gure Zinean

kirola
Ekainaren 5ean, "KIROLARI ATEAK ZABALIK" eguna. Kiroldegian doaneko sarerra eta igerilekuan puzgarriak.

jaialdiak
FLEMING IKASTETXKO JAIALDIA
• Ekainak 4, 11:00etan Arratzaingoa Fleming ikastetxean
IKASTOLAKO JAIALDIA
• Ekainak 4, 14:00etan Txermingo ikastolan

agenda
EKAINAK 4
BEHAR ZANA ELKARTEAREN 65. URTEURRENA
09:30: Xake Txapelketa Behar Zanan.
10:00: Pilota Eskolako Finalak.
18:00: Buruhandiak eta Erraldoiak.
19:00: Hildako elkarkideen aldeko Meza.
20:00: Bazkideen afaria Elkartearen.
23:00: Behar Zanak Danborrada Incansables Txarangarekin, Ondoren, jaigiro aparta Elkarte Incansables Txarangarekin.

EKAINAK 4
POXPOLO ETA KONPAINIAREN EMANALDIA
SEGI JOTZEN OBRAREKIN
Txistulari plazan - 18:30ean

EKAINAK 5
NAZIOARTEKO INGURUMENAREN EGUNA - ASTE BERDEA
ekainak 3 ostirala • Berdura plaza, 17:30-21:00
Bigarren eskuko azoka (interesaetak deitu 899-749439)
Lur-Lan Baseritaren Elkartearen eskutik produktuen dastakela izango da.
ekainak 4 larunbata • Berdura plaza, 11:30
Lore banaketa Atari Bizi lehiaketa

EKAINAK 13tik 19ra
ANIZTASUN ASTEA
ANITZAK ELKARTEAK ANTOLOTUTA
ekainak 13 astelehena
Horrelakoak gara • Balioaitzeko gelan, 18:30
Villabonan egindako jatorri antzitasuna eta elkartzaren inguruko diagnostikoaren aurkezpena.
ekainak 14 asteartea
Ipuin Kontaketa • Aljiben, 18:00
Hans Christian Andersen-en "Pizgaiu magikoa"
Eskuz eta arabieraz kontaketa. Haur eta gurasoentzat
ekainak 15 asteazkena
Solasaldia: Migrazioa, hezkuntza eta hizkuntzak • Balioaitzeko gelan, 18:00
Villabonako hezkuntza errealtatea ezagutuko da.
ekainak 16 osteguna
Aitzoren bila • Errebotte Plazan - 17:00
Gazte, haur, gurasoei, ... zuzendua
ekainak 18 larunbata
Marrakzi lehiaketa "Mundu bat Villabonan, Villabona munduan" • Berdura Plazan, 11:30
Sukaldaritza ikastaroa • Berdura plazan, 11-14:30
Munduko janariak. Informazioa: 943-69 2100
Musika jaialdia • Errebotte Plazan • 19:30
Bumpada Sound Taldea: hip-hop, break dance, beat box, ...
Denok elkarrekin kantuan • Errebotte plazan, 13:00
Jatorri ezberdinetako pertsonak elkarrekin abesten.
Entseguak asteazkenetan 19:00 • Informazioa: 943-69 21 00

EKAINAK 21 • Gurea zinean, 18:00
LOATZO MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIA
EKAINAK 23 • Errebotte plazan, 22:00
SAN JUAN SUA
UZTAILAK 1 • Gurea aretoan, 20:00
DANTZA EMANALDIA
Hutsuneak Betez eskutik

GAZTE INFORMAZIO ZERBITZUA (29 URTE):
• HAURRAK, NERABEAK ETA FAMILIAK: UDA KIROLA kanpainako izen-emateko epea zabalik (9-16 urte), plazak bete arte. Zehaztasun guztiak www.katsaetea.net webgunean eta Gazteleku kanpoko paneletan.
• GAZTEAK: LANTXO BATEN BILA ZABIL TZA? Egutero larreskaintzak jasotzeko www.gipuzkoagazteak.net webgunean "ENIN LANTARI" atalaren zintzilikatzen dira: kontsulta itazul!
GAZTELEKUA ZERBITZUA (12-17):
ASTE BERDEAN: birziklatu lehiaketa (ekainak 4ra arte, egunero)
ANIZTASUNAREN ASTEAN: Atzerriko mahai jolasak sortu eta jolasten ikasi (ekainak 17tik 22ra arte)
HILEKO ASANBLADA:
Ekainak 16an, 18:30ean
6. MAILAKO IKASLEEN GURASOEN BILERA:
Gaztelekuaren aurkezpena (leku, dinamika,...), ekainaren 19an, 12:00etan, Gaztelekuan.

Billabona Futbol Kirol Elkarteak, futbol eskola jarri nahi du martxan

Neska-mutilentzat entrenamendu saioa antolatu dute Arrantzainen; hilaren 11n izango da

Eneritz Maiz Villabona

Billabona Futbol Kirol Elkarteak hurrengo denboraldiari begira pausu bat gehiago eman nahi du. Billabona Futbol Kirol Elkarteak beharrezkoa ikusi du futbol eskola sortzea. Klub bezala, futbol eskola edukitzeko behar diren traste guztiak egiten ari dira. Benjamin eta alebin mailako herriko gazteek futboleko behar diren traste edukitzea nahi dute.

Helburua, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak egindako akordioaren barnean, eta herriko eskola kirolarekin batera elkarlanean egitea dute.

Hau dela eta, ekainaren 11era-ko entrenamendu saio bat antolatu dute. Arratzaingoa futbol zelaietan izango da 10:30etik aurrera. Entrenamendu honetara, 2.000. urtetik, 2.003. urteetara, biak barne, jaiotako mutil eta neska guztiak gonbidatu dituzte. Entrena-



Futbol Eskolako izango duen logoa da. HITZA

mentu saio hau klubeko entrenatzaileek eta eskola kiroleko begirale direnek zuzenduko dute. Nahi duenak, entrenamendu ostean, Arratzaingoa zelaietan bertan, hurrengo denboraldirako aurreinskripzioa egiteko aukera izango dute.

Entrenamendu saiora azaltzeko asmoa duenak, entrenatzeko arropa egokia eraman beharko du, eta entrenamenduaren ostean, nahi izanez gero duxatzeko aukera izango dute. Bestalde, egunean bertan Arratzaingoa futbol zelaietan bertan informazio-puntu bat egongo da Futbol Esko-

lari buruzko edozein zalantza argitu asmoz.

Denboraldi bikaina

Jubenilak, azken partiduraino itxaron behar izan bazuten ere, urteko helburua lortu zuten Oho-rezko mailarako igoera lortuz. Kadeteek helburua lortu dute. Denboraldi bukaera on baten ostean, Oho-rezko mailan mantentzea lortu dute. Infantilak, Gipuzkoako parte hartze mailako azpitxapeladun geratu dira. Alebinak, lehen fasea amaitu eta gero, kopa jolastu zuten eta multzoko hiru-garren postua lortu zuten bertan.

Sagain taldea Malloetara eta Aizkardikoak Pirinioetara Pirinioetara joango dira

Bi mendi taldeen irteeretan izena emateko epea zabalik dago; hilaren 12an dira bi irteerak

E. Maiz Villabona/Asteasu

Sagain eta Aizkardi mendi taldeek, hilaren 12an, irteera egingo dute. Aizkardikoak Pirinioetara antolatu dute. Masosatik abiatu eta Larraille, Lariste eta Lescun igaroko dituzte. 20 kilometro inguruko ibilbidea da. Izena emateko, hilaren 9a baino lehen, 649 71 71 82 telefonora deitu behar da 20:00etatik 22:00etara. Irteera, egunean bertan 06:00etan izango da Olaederra Kiroldegitik.

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak egun osoko mendi irteera antolatu du Malloetara. Amezketatik abiatuko dira, Minetako bi-dea hartu eta Malloak eta Balerti zeharkatuko dituzte. San Martin go parkera bueltatuko dira, eta bertan bazkaria egingo dute. Bakoitzak bere autoan joan beharko du eta irteera, 08:00etan izango da udaletxe aurretik. Izena polikiroldegian eman beharko da 943 69 34 00 telefono zenbakira deituz.

Behar-Zana Elkartearen 65. urtebetetzea

Bihar egun osoko festa izango dute, kirola, musika eta jatekoa uztartuz; igandean bazkaria egingo dute

E. Maiz Villabona

Villabonako Behar Zana Kirol Elkarteak, 65. urteurreneko festa antolatu du bihar eta etzirako. Biharko eguna goizean goiz hasiko dute xake, pilota eta joko garbiko partidekin. Arratsaldean, buruhandi eta erraldoiak aterako dira kalera Loatzo musika eskola-koen laguntzarekin. Afaria, danborrada eta Incansables txaranga izango dituzte egun luzeari amaiera emateko. Afal osteko danborradan atera behar dutenek, gaur, 20:00etan entsegua izango dute Kultur Etxean.

Igandean berriz, dianarekin hasiko dute eguna, eta horretan Loatzo musika eskolako ariko dira. Ondoren, Errebotte partida eta elkarrekin bazkaria izango dituzte.

Behar Zana Pilota Eskola
Maiatzaren 28an, Villabonako Behar Zana Pilota eskolako haur, guraso eta elkarteko kideek egun pasa ederra egin zuten Nafarroako Xareta eskualdean. Goizean goiz Villabonatik atera ziren, eta Bertizten egin zuten lehenengo geldialdia.

Ondoren, Nafarroako Xareta eskualdean kokatzen den Zugarramurdiara joan ziren. Bertan ospetsuak diren Zugarramurdiko kobazuloak eta Sorginen museoazagutu zituzten.



Pilota Eskolako haurrek, gurasoek eta kideek irteera egin zuten. HITZA

↓ 65. urteurrena

BIHAR

- **09:30ean.** Xake partidak izango dira elkarrean.
- **10:00etan.** Pilota Eskolako Festa izango da. Partidak eta sari banaketa.
- **17:00etan.** Joko Garbiko partidak. Eguraldi txarra egingez gero, frontoian.
- **18:00etan.** Buruhandiak eta erraldoiak aterako dituzte, Loatzo musika eskolako ikasleek alaiturik.
- **19:00etan.** Hildako elkartekideen aldeko meza.
- **20:00etan.** Bazkideentzako afaria elkarrean.
- **23:00etan.** Behar-Zana Elkartearen irten, eta herrian zehar Danborrada egingo dute Incansables txarangarekin. Eguraldi txarra egingez gero Berdura Plazan izango da.

- **Ondoren.** Elkartearen dantzaldia eta jai giroa Incansables txarangarekin 02:30ak arte.

ETZI

- **09:00etan.** Loatzo musika eskolako ikasleen Diana.
- **11:30ean.** Errebotte partida. Txarra egingez gero, frontoian pilota partiduak egingo dituzte.
- **14:30ean.** Elkartearen bazkaria.

Eskualdeko triatloilariak protagonista, Bilbon

T'TTk taldeka irabazi zuten Bilboko Nazioarteko Triatloian; Leunda eta Gaztañaga, 3. eta 4. izan ziren

A. Elduaian

Joan zen asteburuan Bilboko Nazioarteko Triatloian Tolosaldeko triatloilariak protagonista izan ziren. Gizonezkoen taldeko sailkapena irabazi zuten Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideek Aitor Regillaga (9. eta Euskadiko Txapelketan 3.), Alberto Vaquero (19.) eta Gorka Sarasolaren (45.) puntuei esker.

Asier Saez (103.) eta Alar Sevillano (161.) ere bertan aritu ziren. Aspaldiko urteetan taldeka lortutako emaitza onena ez bairrik gabe.

Norbanakoei begira, Itsaso Leundak (Garraitx) eta Maider Gaztañagak (T'TT) sekulako lasterketa egin zuten beste behin, hirugarren eta laugarren sailkatuz ondoz ondo. Distantzia Luzeko Euskadiko Txapelketan 2. eta 3. amaitu zuten. Gizonezkoetan Aimar Agirresarobe (AtSS) eta Aitor Regillagaren arteko lehia emozioz bete izan zen. Agirresarobek 8. eta Regillagak 9. amaitu zuten, Euskadiko Txapelketan ondo merezitako 2. eta 3. postuak eskuratuz.

Txintxarri Txiki, Haur Abesbatzen Jaialdian

Zegaman ariko da abesten, larunbatean, bertako Orkatx Txiki eta Ordiziako Oroith Txiki abesbatzarekin

N. Pikabea Alegia

X. Haur Abesbatzen Jaialdia antolatu dute larunbat honetarako, hilak 4. Zegaman. Ordiziako Oroith Txiki, Zegamako Orkatx Txiki eta Alegiako Txintxarri txiki abesbatzak Martin Deunaren parrokiaren ariko dira, 19:00etan.

1997az geroztik antolatzen dute Haur Abesbatzen Jaialdia Zegaman. Aurten alegiarrek eta ordiziarrek parte hartuko dute zega-

marrekin batera. Haur abesbatzen arteko harremanak eta koru musika sustatzeko helburua du topaketak. Urte hasieran jarri ziren harremanetan eta hiru emandali eskaintzea erabaki zuten. Lehendabizikoa Zegamako izango da. Aurrena koru bakoitzak bere kantuak kantatuko ditu eta bukaeran 70 bat haur eta gaztek elkarrekin abestuko dute.

Alegiarrek Juncal Guerrero eta Eva Ugalde euskal konpositoreen bi kantu eskainiko dituzte, horietako bat *Xurian zuri* euskal doinu ezaguna. Leonard Cohen abeslari kanadarraren *Hallelujah* eskainiko dute eta Pirritx eta Porrotxen doinu batekin amaituko du Idoia Iraolak zuzendutako taldeak.

Irudia Tolosa



ORIXEKOAK, AURREAN

Aurreko asteburuan egin zuten Tolosako V. Batel Topaketa, eta bertan, Orixe Institutuko ikasleak lehenengo eta bigarren sariak lortu zituzten. Argazkian, ikasle saridunak. HITZA

Kultur Asteburu oparoa dute Bedaion datorren astean

Harri Jaia, kontzertua, haur parkearen inaugurazioa eta mendi eta BTT martxa antolatu ditu Artubik

Erredakzioa Bedaio

Datorren astean Kultur Asteburua antolatu du Artubielkartek. Harri Jaia egunarekin hasiko dira aurten ekitaldiak, hilaren 9an. Harri Jaia dute bedaiotarrek estima handiz jaso duten ohitura zaharretako bat. Ez dakigu noiz duen egun berezi horrek bere sorrera, baina urtero Igo-kunde egunaren hurrengo ostegunean ospatzen da.

Gaur egun bezala, iraganean ere, eguraldiaren eraginez izaten ziren hainbat egoera triste. Base-rietan uzta bizi iturri garrantzitsuenetako bat zenean eta harri erautsi batek jatekorik gabe utzi edota baserriko teilatuak eta belardiak erabat kalteturik gelditu ziren garai haietan, estualdi asko pasazten zituen eguraldiak. Erlijioak, jendearen bizimoduaren eragin handia zuten, eta gehiago une lazarrietan.

Bedaion, Harri Jaia dugu eguraldiak eta erlijioak jendearen bizimoduaren zuten lotura estuaren adierazle. Bertako adinekoek dio-

tenez, zenbait urtez jarraian egun berean gertatu omen zen harri erauntsia, kaltea berarekin zekarrelarik. Egundak hori izendatu zuten, horrelakorik berriro gerta ez zedin, Jaungoikoari eskaria egiteko eguna, meza eta prozesioa zirelarik eguneko ekitaldi garrantzitsuenak. Ondoren bedaiotarrek jai giroan ematen zuten eguna.

Haur parkearen inaugurazioa
Hilaren 11n, larunbatean, musikak ere izango du bere tarteasteburu kulturean. Tolosako musika eskolako ikasleak bertaratuko dira Bedaioara. Klarinete eta akordeoi taldeak ariko dira, eta beraiekin batera kantatzeko aukera izango da. Emanaldia, 18:30ean, Abaetxe jatetxeko lorategietan izango da.

Ekitaldi honen bigarren zatian, estreinakoz, Jon Beldarrain bedaiotarrak Bedaioari eginiko bertsoak eskainiko dira. Bertso horiek herriari eta bedaiotarrei omenaldi gisa eginikoak dira, bere deskribapena, ohiturak eta auzolanak azaltzen dituelarik. Bertako gazteek, biolina eta dulzainaz lagundurik, osaturiko koru txikiak izango du protagonismoa. Bertso hauek ere guztien artean kantatu ahalko dira.

Egunari amaiera emateko, hainbeste urtetan eskaturiko jolas parke berriari irekiera eman-

go zaio. Haurrek segurtasun handiagoarekin jolasteko aukera izango dute, eta honela, Abaetxe jatetxeak dituen lorategiak herriari eragingo dira. Musikarekin bat, arratsaldean ere, garai bateko eta oraingo argazkien erakusketa izango da, Bedaioako bizitza erakusten duten argazkiak.

Mendi eta BTT Martxa

Kultur Asteburuari amaiera emateko, igandean, hilak 12, kirolari emango zaio lekua eta azkenean urtetan bezala mendi eta BTT martxa burutuko dira. Oinezkoen bideak berdin jarraitzen badu ere, bizikleta martxa aurtetik, parte-hartzaileek hala eskatuta, luzatu egin da eta ia 40 kilometro izango ditu. Irteera Bedaio-tik egingo da, Abaetxeoko parkeetik. Oinezkoak goizeko 07:30ean izango dute irteera eta 08:30ean txiririndulariek.

Izen emateko bide desberdinak eskaintzen dituzte Artubi Kultur elkartekoek: www.bedaio.com helbidean; mendimartxa@bedaio.com edo 620 199 166 telefono zenbakian. Izena emateko irteera baino ordu erdi lehenago itxiko da eta 10 euroko balioa izango du parte-hartzeak. Ondoren laguntzaile desberdinek eskaintako kirol materialak eta bertako produktuak zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

→ Laburrak

Leire Olaberría, Gipuzkoako txapelduna erlojupekoan

IKAZTEGIETA › Leire Olaberría Gipuzkoako Txapelketa eskuratu berri du erlojuaren aurkako proban. Debabarrena taldearekin lehiatzen ari da errepideko denboraldian, pistakoa bukatu eta gero. Txiririndulari ikaztegi-tarra zen proba irabazteko fabroritua eta aurreikuspenak bete zituen. 22:09:89ko denbora egin zuen. Bigarren postuan Tolosa taldeko Irene Usabiagak bukatu zuen, 22:57:75ko denborarekin. Hirugarrena Mireia Epelde izan zen, 23:34:73rekin.

Mendizabal eta Arozena, elkarren aurka igandean

PILOTA › Emakumeen Paleta Argentinareko Kutxa Sari Nagusia 2011 Txapelketa jokatu da. Bertan parte hartzen dute Maider Mendizabal arietarrek eta Nagore Arozena Ibarretzarrek. Igandean, hilak 5, bigarren jardunaldia jokatu dute eta bi partida jokatu dituzte. Partidak Irungo Ramuntxo Berri trinketean jokatu dituzte. 11:30ean hasiko dira, eta Mendizabal Elguezabalekin ariko da Etchelecu eta Arozenaren aurka.



Herritarrek ez dute Ina Zeberio ahaztu

Zeberioaren heriotzaren XIII. urteurrena gogoratzeko Gernikan eta Lizartzan ekitaldiak egingo dituzte

M. Ugartemendia Lizartza

Duela hamahiru urte, Ina Zeberio, ETako kidea, Gernikako Pablo Picasso kaleko etxebizitza batean Ertzaintzarekin izandako tiroketa batean hil zen.

Ordutik, hamarkada bat baino gehiago igaro den arren, lizartzarrek ez dute Ina Zeberio ahaztu,

eta urtero bezala, omenaldiak egingo dizkiote, asteburu honetan, Gernikan eta Lizartzan.

Alde batetik, bihar Gernikan elkartuko dira. Bertan ekitaldi bat egingo dute Zeberioaren omenez. Omenaldia 12:30ean izango da, hil zuten lekuan.

Bestalde, igandean herrian bertan egingo diote omenaldia. 09:00etan mendi martxa bat egingo dute, Axurdariora. 13:00etan, berriz, ekitaldi bat burutuko dute monolitoaren aurrean. Azkenik, 14:30ean, elkartean bazkalduko dute denek batera. Bazkarira joan nahi dutenek txartelak herriko tabernetan eros ditzakete.



Lizartzan ekitaldi bat egingo dute monolitoaren aurrean. S. GOMEZ

Gipuzkoako eta Nafarroako herri kiroleetan eskualdekoak

Tolosaldeko kirolariak 2. mailako aizkora txapelketan eta Leitzakoak Iparraldeko Jokoetan ariko dira

M. Ugartemendia

Asteburu honetan Gipuzkoako eta Nafarroako herri kiroleko hainbat txapelketa jokatu dira, eta bertan jokatu dute gure eskualdetako kirolariek.

Gipuzkoan 2. mailako aizkora txapelketa jokatu da. Tolosaldeko bost aizkolarik parte hartuko dute aizkora txapelketako kanporaketan.

Igandean, Beasainen eta Legorretan jokatu dira kanporaketak, lehena eguerdiko 12:30ean eta bigarrena 18:00etan. Beasainen 10 aizkolaria ariko dira guztira; horietatik 3 eskualdekoak: Jokin Alkizalete (Asteasu), Iñaki Agirre (Ibarra) eta Unai Otaño (Ibarra). Legorretan, berriz, 9 aizkolaria ariko dira lanean, horietatik 2 eskualdekoak: Xabier Alkizalete (Asteasu) eta Mikel Belauntzarán (Berrobi).

Leitzarrak ere herri kiroleetan
Igandean, XI. Iparraldeko Joko Torneoari ere hasiera emango zaio. Lehenengo jardunaldia Urdazubiko pilotalekuan izango da, 18:00etan. Probak banakakoak dira, eta guztira 3 jardunaldi jokatu dira, liga sistema erabiliz.

Iparraldeko Jokoen barruan 7 modalitate sartzen dira, eta horietako hiruretan ariko dira Leitzako 4 kirolari: Josetxo Urrutia harri jasotzen eta txingekin, Migel Angel Sukuntza txingekin, Patxi Baraibar txingekin eta ingudea altxatzen, eta Lazaro Bujan txingekin eta ingudea altxatzen.



Unai Otaño, aizkolaria. HITZA

Ahotsezko jazz emanaldi «erakargarri» bat izango da Leitzan

‘The new jazz voices emsemble’ diskoaren aurkezpena izango da, gaur, 22:30ean, herriko zinean

M. U. Leitzan

The New Jazz voices emsemble diskoaren aurkezpena egingo dute, gaur, 22:30ean, herriko zinean. Disko hau 2008an sortutako proiektu bat da, eta ahotsezko jazz du oinarri. Gainera, entzule guztientzat zuzendua dago.

Antolatzaileen arabera proiektu «bakarra, berritzaile eta erakargarria» da. Izan ere, «pop, funk, jazz, musika latindarra, brasildarra, eta euskal musika bateratzen ditu.»

Proiektua sortu zenetik, ibilbi-



Nerea Erbiti, leitzarra. HITZA

de aberatsa izan du proiektuak, eta hainbat kontzertu eskaini dituzte. Mikel Gaztelurrutia pianojotzaile eibartarraren azken proiektuan zazpi musikaririk parte hartzen dute: lau ahots mistok, pianoak, kontrabaxuak eta bateriak. Lau ahotsetako bat, kontraltua, hain zuzen ere Nerea Erbiti leitzarra da. Beraz, leitzar baten ukitua duen proiektu berezi honetaz gozatu ahal izango da, gaurkoan herriko zinean.

Udalak hil honetan kobratuko ditu zergak

Zaborraren eta Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezin zergak kobratuko dira, hilaren amaiera arte

M. U. Ibarra

Ibarrako Udalak herritarrei jakinarazi diete «zaborraren ordainagiriak kobratuko direla», hilaren 30a bitarte. Epea igaro ondoren, bide exekutiboz kobratuko dira, %20ko gainkarguz. Helbideratuta dauden ordainagiriak hilaren

15ean kobratuko dira. Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango dira.

Ondasun higiezin zergak

Era berean, hilaren 30a bitarte 2011ko Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezin zergen ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean. Ordainketak Aurrezki Kutxa edo Banketxetan egin daitezke. Helbideratuta ordainagiriak borondatezko epearen azkeneko egunean kobratuko dira. Ordaindu ez diren kuotak %20ko errearguarekin kobratuko dira.

Jon Rekondo hirugarren postua lortzen saiatuko da Urrezko mailan

Rekondoren eta Azurmendiren arteko lehia igande honetan izango da, Ziordian, 12:00etan

M. Ugartemendia Leitzan

Pasa den astean, Leitzan finalerako txartela lortzerik izan ez bazuen ere, Jon Rekondo banakako aizkora txapelketako hirugarren postua lortzen saiatuko da.

Igandean, Nafarroako Ziordia herrian, 12:00etatik aurrera, 23 urte azpikoena finala eta Urrezko mailako hirugarren eta laugarren postua jokatu dira.

23 urte azpikoena finalen Atutxa II.a eta Larretxea saiatuko dira txapela eskuratzen. Horrez gain, Urrezko mailako hirugarren eta laugarren posturako lehiari Jon Rekondo eta Iñaki Azurmendi ariko dira.


→ Laburrak

Aresoko aldizkariarentzat izen bila dabilta

ARESO › Aresoarrak herriko aldizkari bat prestatzen ari dira. Jada lan taldeak osatuta dute, eta hauek hasi dira aldizkaria lantzen. Orain aldizkariari izen bat jartzea falta zaie, eta herritar guztiei aukera eman nahi diete beraien proposamenak aurkezteko. Beraz, norbaiti aldizkariarentzat izenik burutzen bazaio okindegian eta Sastinean egongo diren kutxatxoetan utzi behar dituzte proposamenak, hilaren 10a baino lehen.

Atekabeltz Herriguneko atek zabalduko dituzte

LEITZA › Gaur, 19:00etatik aurrera, Atekabeltz Herriguneko atek zabalik izango dira leitzar guztientzat. Bertan proiektuaren aurkezpena egingo dute, lehenik. Ondoren, proiektuaren parte hartze gongibidapena egingo zaie bertaratu direnei eta herriko eragileei. Azkenik, denon artean mokadutxo bat egiteko luntxa ere antolatuko dute. Herritar eta eragile guztiak Atekabeltz Herrigunea ezagutzera gonbidatu dituzte antolatzailleek.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak**‘Ez txuri, ez beltz’
antzezlan gaur, Gurean

VILLABONA ▶ Alegiako Ttapa Antzerki Taldeak, Villabonako Gurea antzokian *Ez txuri, ez beltz* antzezlan eskainiko du. 22:30ean izango da. «Bizitza honetan gauza guztiak bi irizpideren arabera sailkatzea ohi-tuak gaude. Elkar kontrajarriak diren kontzeptuak erabiltzen ditugu, baina koloreak erabiliko bagenitu, txuria eta beltza ez lirakeke nahikoak izango. Tartean dauden horiek ere kontuan hartu beharko genituzke», ideia hau oinarri hartuta osatu dute lana.

Autobusa AHTren aurkako manifestaziorako

ZIZURKIL ▶ AHT Gelditu! Elkarlanak, hilaren 11n, 18:00etan AHTren aurka Arrasaten egingo den manifestaziora joateko deia luzatu du. Autobusa jartze-ko asmoa dute: Villabonatik 16:00etan, Anoetatik 16:15ean, eta Tolosatik 16:30ean irtengo da. Abiadura Handiko Trenaren obrak direla eta, Zizurkilgo hainbat lurretan zundaketak egin ahal izateko akten altxamen-duak egin nahi izan dituzte. Hiru lurjabeek ez dute sinatu, AHT Gelditu! Elkarlanaren arabera.

Bihar Aiztondo IV. Gutun lehiaketako sari banaketa

ALKIZA ▶ Bihar Alkizako Kultur etxean, Aiztondo IV. Gutun lehiaketaren sari banaketa egingo dute. 18:00etan eman-go diote hasiera eta saridun bakoitzak, bere gutuna irakurri-ko du. Diploma jaso ondoren, merienda banatuko dute.

138 kiloko zilindro zaharrarekin egingo dute txapelketa, igandean

Gorostidi Harriaren V. Txapelketa 18:00etan hasiko da frontoian; aizkora erakustaldia ere izango da

Eneritz Maiz Aduna

Gorostidi Harriaren V. Txapelketa jokatu da igandean, Adunan. Muxkil Taldeak antolatu du saioa Adunako Udalaren laguntzarekin batera. 18:00etan izango da herriko frontoian, eta sarrerarik jarri ez badute ere, bertaratuei borondatea eskatuko diete.

Harri-jasotzaileak, 138 kiloko zilindro zaharrarekin lehiatu beharko dira. Aurten, Aimar Iri-goien, Beñat Telleria, Josetxo Urrutia, Izeta III.a, Belloso eta Unai Bertiz izango dira. Nor baino nor 138 kiloko zilindro zaharri heldu beharko diote.

Bakoitzak bost minutuko saio bat egingo du, eta bi eskuekin jasoko dute. Nork jasoaldi gehiago eman izango da txapelketa. Izan ere, bere garaian, Inaki Gorostidi adunarrak, 138 kiloko zilindro zaharra esku bakarrarekin 28 aldiz jasotzea lortu zuen.

185 kilokoarekin, ezustekoa

Inork 185 kiloko zilindro zaharri heldu eta bizkar gainera igo nahiko balu, urtero bezala, frontoian egongo da harria. Hori bai, harria esku bakarrarekin jaso beharko da. Aurten, Gorostidik aipatu duenez, ezustekoren bat egingo da: «Zenik eman ez badu



185 kiloko zilindro zaharra, ezustekoa emateko zain egongo da. SARA GOMEZ

↓ **Gorostidi Harriaren V. Txapelketa****EKAINAK 5, IGANDEA**

■ **18:00etan.** Adunako frontoian izango da.

■ **138 kiloko zilindro zaharra.** Harri honekin jokatu dute txapelketa.

■ **Harri-jasotzaileak.** Aimar Iri-goien, Beñat Telleria, Josetxo Urrutia, Izeta III.a, Belloso eta Unai Bertiz.

■ **185 kiloko zilindro zaharra.**

Esku bakarrez jasotzen duenak saria izango du.

■ **Aizkora erakustaldia.** Olasagasti eta Arrospeide aizkolariak ariko dira, 3 metro buelta pasatako enborra moztu beharko dute.

■ **Borondatea.** Antolatzaileek ez dute sarrerarik jarri, baina borondatea eskatuko dute.

ere, harri-jasotzailearen batek ahalegina egingo duela diote». Gorostidik 77 kilo baino ez zituela lortu zuen harri hau esku bakarrarekin sorbalda gainera igo-tzea.

Harri-jasotzaileez gain, aizkora erakustaldia prestatu dute adunarek. Enborraren aurrean

jarriko diren bi aizkolariak, Jose Mari Olasagasti eta Arrospeide izango dira. Kasu honetan, 3 metro buelta pasa duen enborra izango dute aizkora egiteko.

Aizkora eta harri-jasotzaileez gozatu nahi duenak, arratsalde ederra pasatzeko aukera izango du beraz, etzi.

Aste Berdearen barruan Bigarren Eskuko Azoka izango da gaur, Berdura plazan

Bihar lore banaketa egingo dute Atari Bizi Lehiaketaren barruan; Zizurkilgo igandean, ibilaldia egingo dute

E. Maiz Villabona/Zizurkil

Tolosaldeko Aste Berdean dauden ekitaldiak aurrera doaz. Gaur, Villabonako Berdura Plazan Bigarren Eskuko Azoka egingo dute; 17:30etik 21:00etara egongo dira postuak jarrita.

Azken urteetan antolatzen duten ekitaldietako bat da Bigarren Eskuko Azoka hau eta urtetik urtera arrakasta handiagoa du. Azoka honen helburu nagusia, hondakinen murrizketa eta gauza eta objektuen berrerabilpena bultzatzea da. Erabiltzeko moduan dauden eta norberak behar ez dituen gauzak jartzen dituzte edonoren eskura.

Larunbatean, Atari Bizi Lehiaketaren barruan, lore banaketa egingo dute 11:30etik aurrera Berdura plazan.

Mendi ibilaldia

Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, igandean, mendi ibilaldi herrikoa egingo dute. Bi irteera puntu izango ditu, 12 kilometro inguru ditu ibilbideak eta 150 metro inguruko desnibela. Herriko bi plazetatik aterako dira parte-hartzaileak 09:00etan. Ondoren, guztiak San Migel ermitan elkartuko dira. Zizurkilgo udalerria, ekialdetik mendebaldera, zeharkatuko dute.

📍 **Urteurrena**

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**INA ZEBERIO**

XIII. URTEURRENA

(1998KO EKAINAREN SEAN ERAILA)



*Maiteko zaitugu,
bizirik edukiko
zaitugu gure
bihotzean.*

Bihar, larunbata, 12:30ean Gernikan omenaldia, erail zuteneko tokian.
Etzi, igandea, 13:00etan Lizartzan omenaldia, monolitoan.

Lizartzan, 2011ko ekainaren 3an

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



19°
16°

GOIZA	EKAITZA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	21°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Armezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Bonberenearen inguruko hausnarketa egingo dute gaur, 19:00etan Bonberenean bertan.
- **Tolosa.** Tolosaldeko Aste Berdearen barruan, Bigarren Eskuko Azoka gaur, Berdura plazan 17:30etik 21:00etara.
- **Tolosa.** Samaniego ikastetxeak ikasturte amaierako festa egingo du bihar. Egunari hasiera emateko ikasleen emanaldiak izango dira 12:00etan eta ondoren jolasak, bazkaria eta giroa alaitzeko Bonbereneako txaranga izango da 16:30etik aurrera. Festa bukatu ondoren txarangarekin kalejiran joango dira Plaza Berriraino.
- **Ibarra.** Uzturpe Ikastolak bere eguna ospatuko du bihar. Goizean perkusio taldeak, ikastolako ikasleek eta Banintz Alurr dantza taldeak kideak jaialdia egingo dute. Ondoren, pilotako finalak jokatuko dituzte, eta 14:00etan bazkaria egingo dute Belabietako kiroldegian. 15:30ean puzgarriak izango dira, eta ondoren, Toka Txapelketa eta dantzaldia egingo dute.
- **Villabona.** Fleming ikastetxeak jaialdia bihar, 11:00etan.
- **Villabona.** Jesusen Bihotza Ikastolaren jaialdia bihar, 14:00etatik aurrera Txerminen.
- **Villabona.** Lore banakaeta Atari Bizi Lehiaketaren barruan bihar, 11:30ean Berdura plazan. Ekimena Tolosaldeko Aste Berdearen barruan kokatu dute.
- **Anoeta.** Udak Ingurumen eta Agenda 21eko Batzordeak bihar auzolan ekimena burutuko du. Oraingo honetan Alkiza errekan Osinuzlotik Gaztetxera bitartean garbiketa lanak egingo dituzte, eta sasiak moztuko dituzte. 09:30ean elkartuko dira plazan, eta ondoren, betiko moduan, udalak hamaiketakoak banatuko die lanean aritutakoiei.
- **Tolosa.** Lore eta Landareen Azoka Berezia bihar, goizean zehar. Era berean, bihar hasi eta ekainaren 12a bitarte herriko bost guneean lorategi bereziak jarriko dituzte.
- **Anoeta.** Herri Ikastolaren eguna etzi. 11:30etik 14:00etara eskulanen erakusketa; 09:00etan ibilaldi neurtua; 11:15ean kalejira; 12:00etan ikasleen emanaldia Kiroldegian; 12:30ean futbol partidak eta batukada; ondoren, bazkaria; eta 16:00etan joako eta sari banaketa.

- **Tolosa.** Oargi mendi taldeak etzi, ekainak 5, Kantabriako Peña San Vicentera (930 m) joateko irteera antolatu du. Batzuk gaur arratsaldean aterako dira, eta bihar Ramalesen eskalada edo ferrata egingo dute. Izena emateko, edo informazio gehiagorako 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu behar da, edo info@oargi.org helbidera idatzi.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarrekin mendi irteera antolatu du etzizako, ekainak 5. Txangoa Otxagabiati hasi eta Isaban bukatuko da, Kakueta (1.583 m) mendia igoko dutelarik. Autobusaren irteera San Frantziskon izango da 07:00etan. Izena emateko deitu 943 65 27 89 telefono zenbakira, edo idatzi alpinouzturre@hotmail.com helbidera.
- **Armezketak.** Festa batzordeak hamaiketako antolatu du herriko jubilatuentzat etzizako. Izena udateleanean eman behar da, edo 688 631 952 telefono zenbakira deituta. Gaur da azken eguna.
- **Armezketak.** Saharara bidaltzeko janari bilketa egiten ari dira. Produktuak udateleanean eraman behar dira, eta gaur da azken eguna.
- **Berrobi.** Begi Gorri gaztetxeak eta hainbat herritarrek Erroizpe-Berastegi-Elduain-Berrobi ibilbidea antolatu dute biharko. 09:00etan irteerako dira Iriarte aurreko plazan. Eguraldi laguntzen badu, Erroizpe gainean erromeria eskainiko dute herriko gazteek.
- **Aduna.** 16 urtez alkate eta 12 urtez zinegotzi izan den Jabier Zabalarri omenaldia egingo dute etzi, 12:00etatik aurrera herriko plazan.
- **Tolosa.** Astelehenean, ekainak 6, 20:00etan «bilera garrantzitsua» egingo da Gure Txokoa elkartean, San Joan egunean parte hartu nahi duten eskopetariekin. Bilera honetan eskopeten zozketaz eta partehartzaileren mugatzeaz hitz egin eta erabakiak hartuko dituzte.

KIROLAK

- **Tolosa.** Usabalgo goiko kan-txan gaur, 17:30ean saskibaloi-ko kadete mutilen partida: Take Tovar-Internacional; 19:30ean jubenil mutilena: Take-Zast, eta

jubenil neskena ondoren: Aralar Take-Astigarraga.

- **Tolosa.** San Joan Zesta Punta Txapelketako partidak gaur, 20:30etik aurrera Beotibarren.
- **Tolosa.** Usabalgo goiko kan-txan bihar, 09:00etatik aurrera, saskibaloi: infantil mutilen Take Aldaba-Orio, eta infantil nesken Take Montesku-Bera Bera. 10:30etik aurrera saskibaloi: infantil mutilen Take Ori-Añorga. 18:00etatik aurrera areto futbol: Laskorain-Gazte Berriak. Futbol zelaian 16:30ean Tolosa-Sporting Herriera.
- **Aduna.** Gorostidi Harriaren V. Txapelketa etzi, frontoian 18:00etatik aurrera. Aizkora erakustaldia ere izango da.
- **Tolosa.** Usabalgo futbol zelaian etzi, alebinetako ikastole-tako partidak izango dira goizean zehar.
- **Tolosa.** Gipuzkoako Herriarte-ko Txapelketaren barruan, etzi 10:30etik aurrera Beotibarren zesta puntako partidak: Tolosa-Donostia.
- **Villabona.** Kirolari Ateak Zabalik ekimenaren barruan etzi Kiroldegiko sarrera doan izango da, eta igerilekuetan puzgarriak izango dira.
- **Tolosa.** Kirolari Ateak Zabalik ekimenaren barruan Ori ibaian ekitaldi ugari izango dira etzi, 10:00etatik aurrera: Arraunlariak, piraguitak, arrantzaleak...

ANTZERKIA

- **Aduna.** V. Poltsikoko Lehiaketaren bigarren finalurreko gaur, 22:30etik aurrera Asvinenean.
- **Villabona.** Ez txuri, ez beltz gaur, Gurean 22:30etik aurrera.
- **Tolosa.** Poliposeidas taldearen *Abecedario del cambio* bihar, 22:00etan Zerkausian, Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.
- **Villabona.** Poxpolo eta Konpainiaren *Segi jotzen* bihar, 18:30ean Txistulari plazan.

ZINEMA

- **Tolosa.** Bihar 19:30ean *Rompecabezas*, eta 22:30ean *The Company Men*. Igandean 17:00etan *Arthur eta munduaren gerra*, haurrentzako filma euskaraz; eta 19:30ean eta 22:30ean *The Company Men*. Astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean *Rompecabezas*.

Agurrak



Urte askoan!

Katalina Karrera eta Iñaki Artola (Tolosa). Igandean biek urteak beteko dituzte. Zorionak alaba, iloba eta familia guztiaren partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.



Ongi etorri!

Alaitz Azpiroz Izagirre.
2011-05-26
Bedaioatar berria.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

9. EDIZIOA
IMH SARIAK ekainak Berako proposatu ikasle ohia www.imh.es webean!

ENPRESA BAREKILEAK

ENPRESA KOLABORATZAILERAK

AGME, S.A. - ALCORTA FORGING GROUP, S.A. - DPH PROIEKTU HIDRAULIKOEN GARAPENA S.L. - ELKARMEDIA, S.L. - ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. - GORATU MAGNINAS-HERRAMENTA, S.A. - IBARRIA, S.A. - ILS - INDUSTRIAS ALGA, S.A. JURISTI, S.L. - LAIP, S.A. - MAZA - PIERBURG, S.A. - PIXEL SISTEMAS, S.L.

IKASLE OHI APAGARRIA / IKASLE APAGARRIA / FABRIKAZO ARLOKO IKASLEA / ELGOIBARKO IKASLE APAGARRIA
2011koak hartuko dituzte
Ikusi sariak webean: 800 eurotako ikasketak potza...

Ingeniaritza imh
aurrematribula: ekainak 17
IKASI eta LAN... ZITE ERANDA!

IMH Elgoibar
HEZKETA ZIKLOAK
aurrematribula ekainak 1-18

Tel 943744132 - www.imh.es - elgoibar